

# CARANCA

– ARABA / ÁLAVA –

Karanka herria 45 km-ra dago Gasteiztik eta 28 km-ra Miranda de Ebrotik. Bertara heltzeko, N-I errepidea hartuko dugu, Burgos-Madril norabidean, Langraiz Okan dagoen Los Llanos industrialdeko 340. irteeraraino. Pobesko zeharbidean, malda arineko hainbat bihurtune igaro ondoren, Espejo herria zeharkatu eta Bilaneranaino jarraituko dugu errepide beretik. Han, A-3320 errepidea hartu eta Tumecillo ibaiaren bideari jarraituko diogu. Bidegurutze horretatik bi kilometro inguru eginda azalduko zaigu Karanka begien aurrean.

Goi Erdi Aroan sortutako Karkamu, Astulez eta Mioma herriak inguruan dituelako, lehena-goko garaietan garrantzi handia izan zuen Gaubea udalerriaren erdigunean dago Karanka. Herriok Arabako lurraldeetan jabetza ugari zituzten Valpuestako Santa María la Mayor eta Donemiliaga Kukulako monasterioen eraginak sustatu zituen. Hala ere, ezin dira aipatzeke utzi antzinako garaietan bizileku izandako eta jendez hustutako Lastrako Kastroa herrixkaren hondar arkeologikoak, Karankatik hurbil, zeinetan Burdin Aroko aztarnak aurkitu diren.

S. Ruiz de Loizagak egindako toponimia-ikerketen arabera, herriaren izenak ilirierazko *Karanto* berbarekin –“harritsu” esan nahi du– izan dezake lotura. Donemiliagaren Botoetan aipatzen ez bada ere, 1028ko beste dokumentu batean, monasterio horrek Gaubeako lurraldean zituen jabetzen artean ageri da. Dokumentu horren eraginez, Valpuestako monasterioak bere pribilegio eta eskubideen berri jasotzeko diploma bat idatzi zuen, Lausa Haranean eta Mirandan zituen ondasunak babestearren.

1290. urtean, Antso IV.ak zabaldu egin zuen Gesaltza Añanari emandako Forua. Zabalkuntza horretan, San Millán de Zadornil, Astulez, Karanka eta Lantaron barriak sartu zituen haren aginpidean. Horrelaxe sartu zen Karanka, gaur arte, Añanako Ermandadean, eta ondorioz, Gaubeako udalerriaren eta Añanako koadrilaren barruan.

La localidad de Caranca dista 45 km de la capital alavesa y 28 km de Miranda de Ebro. Para llegar hasta ella, se toma la N-I en dirección Burgos-Madrid, hasta la salida 340 de Los Llanos, en Nanclares de la Oca. Se continúa por la travesía de Pobes, y tras una sucesión de curvas en ligera pendiente, se atraviesa el pueblo de Espejo y se sigue en la misma carretera hasta Villanañe. Desde este punto se toma la carretera A-3320, siguiendo el curso del río Tumecillo. Tras un par de kilómetros de este cruce aparece la localidad de Caranca.

Este pequeño pueblo se encuentra en el centro del municipio de Valdegovía, de gran importancia en tiempos pasados, ya que está rodeado de localidades como Karkamu, Astúlez o Mioma, que surgieron en época altomedieval. Fueron potenciados por el vecino monasterio de Santa María la Mayor de Valpueda y por la influencia de San Millán de la Cogolla, con un gran número de propiedades en la provincia alavesa. Sin embargo, no podemos dejar de citar los restos arqueológicos de Castros de Lastra, en las cercanías de Caranca, donde se han encontrado vestigios de la Edad del Hierro, un asentamiento que fue abandonado.

Según los estudios toponímicos realizados por S. Ruiz de Loizaga, el topónimo de esta localidad parece que podría relacionarse con el término ilirio de *Karanto*, que significa rocoso. Pese a que no aparece en los Votos de San Millán, en otro documento, fechado en 1028, figura entre las posesiones de este monasterio en tierras de Valdegovía. Este hecho provocó que el monasterio de Valpueda redactara un diploma con sus privilegios y derechos, para proteger sus posesiones en el Valle de Losa y de Miranda.

En 1290, Sancho IV amplió el Fuero concedido a Salinas de Añana. En esta ampliación incluía dentro de su jurisdicción los términos de San Millán de Zadornil, Astúlez, Caranca y Lantarón. De este modo entró a formar parte de su Hermandad hasta hoy, perteneciendo así a la cuadrilla de Añana dentro del municipio de Valdegovía.

## San Joan Bataiatzailea eliza / Iglesia de San Juan Bautista

**E**LIZAREN AURREAN, goialdeko moldura soilaz apainduriko pilare bat dago, gainean burdinazko gurutze bat duena. Antzina, bidegurutzeetan aurkitu ohi ziren harrizko gurutzeak ekartzen dizkigu gogora.

Eraikin soila da, nabe bakarrekoa, eta horren jatorrizko egitura oso aldatuta dago, oinaldean ezarritako dorre karratuaren eta hegoaldean ipinitako arkupearen eraginez. Dorreak oso tamaina handia du eraikinaren gainerakoari buruz, eta erdi-puntuko hainbat arku ditu, kanpai-tokia inguratuz. Goiko lau arkuak euren artean lerrotaturik bide daude, baina beste arku bat ere badago, desplazaturik, beste kanpai batekin, multzoaren gainerakoaren simetria hausten duena. Eraikin osoa harlangaitzekoa da, eta silarritz indarturik dago eskantzuetan.

Eliz ataria nabarmenduriko baina apaindu gabeko inposta-lerroak dituzten erdi-puntuko bi arkuren bitartez irekitzen da. Arkuon gainean, bi bao karratu txiki daude. Atarian, elizara sartzeko atearen arku beheratuaz gain, ezer gutxi geratzen da antzinako portada erromanikotik, inposten hondarrak izan ezik.

Barruan, bi bataiarri daude, nabearen alboetako batean. Haietako batek apaindu gabeko ontzi handi eta oso irekia du, eta altuera txikiko harroin zirkularra duen oinarri zilindriko batean dago bermatuta. Beste bataiarria txikiagoa da, ontzi itxiagoa du, eta mutxardaturik dago. Ho-

**E**STA IGLESIA se encuentra precedida de un pilar decorado con una sencilla moldura en su parte superior, coronado por una cruz de hierro. Parece recordar un antiguo crucero de piedra.

Se trata de un sencillo edificio con una única nave cuya estructura original se encuentra muy modificada por una torre cuadrada situada a los pies y un pórtico en el lado sur. La torre, de gran envergadura con respecto al resto de edificio, tiene varios arcos de medio punto que albergan las campanas. Los cuatro arcos de la parte superior parecen estar alineados entre sí, sin embargo, se abre otro en su pared sur, desplazado y con otra campana, que rompe la simetría del resto del conjunto. Todo el edificio es de mampostería, reforzado en sus esquinales por sillares.

El pórtico se abre a través de dos arcos de medio punto con las líneas de imposta sobresalientes pero sin decoración. Sobre ellos hay dos pequeños vanos cuadrados. En el mismo pórtico observamos que, aparte de un arco rebajado en el que se encuentra la puerta de acceso al interior de la iglesia, poco o nada queda de la antigua portada románica, salvo los restos de las impostas.

En su interior encontramos dos pilas bautismales, en uno de los laterales de la nave. Una de ellas presenta una copa de gran tamaño y muy abierta, sin decoración. Se apoya sobre una base cilíndrica y con una basa circular de

Portada zabarraren hondarrak / Restos de la antigua portada



Bataiarria / Pila bautismal



rrren apaingarri bakarra marrazki lineal bat da: ontziaren goialdean, erliebe txikiz eta apaindu gabe ageri den banda bikoitza, hain zuzen. Beheko aldean pixka bat zabalagoa, oin modura, duen zilindro batek –ontziaren egikera berekoak– eusten dio ontziari.

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI

muy poca altura. La otra pila, de menor tamaño, tiene la copa más cerrada y se presenta abujardada. La única ornamentación que luce es un dibujo lineal: una doble banda con ligero relieve sin decoración en la parte superior de la copa. Se apoya sobre un cilindro de igual factura, que se ensancha ligeramente en su parte inferior, a modo de pie.

Texto y fotos: JCE/MLAI

### *Bibliografía / Bibliografía*

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 291; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 2003, p. 90.